

- |   |   |   |
|---|---|---|
| 1. Sacramentu Santu Jauna<br>Zelebradu zanian<br>izena ipiñi deutze<br>Jesús salbadoria.      | 12. Iru errege magoak<br>Ain bide luzian<br>ostatu ardu eban<br>ain etxe pobrian.                                   | 23. Belenengo urrian<br>gaben gabaren erdian<br>Birjiña Santísima dago<br>kontzolaziño andian                     |
| 2. Abendu Santu onetan<br>kristoren jaiotzia<br>kontentu aren andiz<br>guztiok poz gaitian.   | 13. Gazparrek intzentsua<br>Meltxorrek urria<br>Baltazarrek eroeban<br>Mirra preciosua.                             | 24. Korrelateko ardian bere<br>dantzari ebiltzan orduan<br>gure Jesús Salbadoria<br>jaio dalako munduan.          |
| 3. Adán formatu zan<br>lenengo lurrian,<br>Pekatu egin eban<br>Paradiso Terrenalian.          | 14. Erodes erregia<br>ain faltzo traidoria<br>zeren damua dozu<br>Kristoren jaiotzia                                | 25. Jesús dibino gauaren otza<br>jausten dan inñetaxiye<br>erloju biyen onela bada<br>ilda ganadu guztiye.        |
| 4. Linbian egoan delez<br>bost milla urtian,<br>Jauna zerutik lurrera<br>etorri zan artian.   | 15. Mendian segoala<br>jaboten ganadua<br>agertuten iakosan<br>zerutik aingerua.                                    | 26. Ortirik gora ni enoiela<br>ozpitaletxu zar baten<br>aita San Jose topatu neban<br>astotxu zar bat txalmatzen. |
| 5. Eguzki dibinala<br>gauaren gauerdian,<br>etorri zan mundura<br>gizonaren antzian.          | 16.   | 27. Nazareteko templuan dago<br>Dama eder bat jarririk<br>izena berak Maria deuko<br>ondo graziaz beterik.        |
| 6. Trinitade artuko<br>bigarren personia<br>transformaturik dago<br>Belen-engo portalian.     | 17. Agur ba doncellia<br>graziaz azko betia,<br>zure izena dezu<br>Maria Birjiña.                                   | 28. Bederatzi gau tristetan<br>ibilli gara otzetan<br>borondaterik badaukazue<br>poztuko gara benetan.            |
| 7. Idigidira zeruko<br>ate diamanteskoak<br>arexeekin batera<br>leio izarrezkoak.             | 18. Arkanjel San Gabiel<br>anunciadoria<br>ez gaituz ezpantatu<br>ain jente humildia.                               | (Onek sei kopia ondaren<br><br>"Da bart Belenen<br>da bart Belenen<br>jaio da Jesús Nazaren.")                    |
| 8. Nabegadua izan zan<br>bederatzi illa betian,<br>mundu onetako<br>itxasoaren ganian.        | 19. Josepek dirautzo<br>Maria Birjiñari,<br>noz agertuko dabe<br>esperantza gure ori.                               |   |
| 9. Eguzkia zelan doan<br>kirstalaren artetik,<br>semia jaio alan<br>amaren sabeletik.         | 20. Nor eta nor biziñ da<br>etxetxu zar orretan,<br>nor eta <del>nor</del> zer guraizeunke<br>Jaunaren ordu onetan. |   |
| 10. Nor da emen mensajerua<br>San Gabriel aingerua<br>egingo dabela ondo<br>Jaunaren agindua. | 21. Billozik bazagoz bere<br>ez zara zu pobria,<br>Zeruan josirik dagoz<br>zurentzako erropia.                      |   |
| 11. Astoak arrantzia<br>idiak arnasia<br>alan berotzen eban<br>jaio zan infantia.             | 22. Otzaren negarret dago<br>jaio dan infantia<br>bere amak dirautzo<br>O ze musika dultzia.                        |   |

Lenengo lau egunetan onek argitaratuniko bertzo edo kopia gustiak "Abendu Santu" aren soñuagaz abestuten dira. Urrengo bost egunetan "Billosik bazagoz" en muzika ntzako leloa au da:

" Maria José  
Jesús Maria"

Eta bigarren musikantzako leloa au da:

" Jesukristo  
Adoratzen zaitugu  
Jesukristo "